

BALIO PROPOSAMENA - AJIA Deliveries

Konpondu nahi genituzkeen arazoak, honakoak dira:

- Bezeroen denbora aurrezte
- Pertsona pilaketak **covid-19** garaian
- Gasolinaren gehiegizko kontsumoa
- Kotxearen erabilera gehiegizkoa da, eta guk hori txikiagotzeko furgoneta elektrikoak erabiliko dugu eta furgoneta horretan hainbat etxeetako erosketak eramango ditugu. Pertsona bakoitzak bere kotxearekin erosketak egitera joango balira, kutsadura maila geroz eta handiagoa izango zen.

Zergatik erosi gure enpresan /eta ez lehiakideei? Gure enpresaren lehiakide posible bakarra Amazon da, orduan, hobeagoa da orain berri hasi den enpresa nazional bati erostea, multinazional milioidun bati baino. Gainera, beste hainbat arrazoi asko daude gure enpresan erosteko: lanpostuak sortzea, gertuko tratu pertsonalizatuaz gozatzea, hirietako auzoei bizitza ematea, produktu eskusiboez edo kalitate handiagokoez gozatzea...etab.

Supermerkatuko salmenta etxean entregatuko dizute, zuk ez zara mugitu behar.

- Autoen mugimendua txikitzen da (30 kotxe egingo duten mugimendua, gasolinaren kostua eta CO2-renkutsadura saihesten da eta kamioneta furgoneta bakarrekin egingo dira hainbat eta hainbat eskaera).
- Entregatzerako orduan, **diru fisikoarekin** ordaintzeko aukera izango duzu (enpresa gutxiak duten aukera) hirugarren adineko pertsonak gehiago erosteko eta ordaintzetan seguruak izateko bezeroentzat. Metodo horrez gain, ordaintzeko beste bi aukera eskaintzen ditugu, **paypal eta kreditu txartelaren** bitartez.
- Ez dira ezagutzen hau egiten duten enpresek edo ez daude oso zabaldua (merkatuan sortzeko hesiak ez dira oso handiak arrazoi horregatik).
- **Supermerkatu ezberdinen produktuak eskainiko** duen enpresa gara. Askotan erosketak egiterakoan konturatzen gara **supermerkatu ezberdinen produktuak erosten ditugula** eta horretarako asko mugitu behar gara, denbora asko behar dugu supermerkatu ezberdinetara joateko, laguntza behar dugu erosketak eramateko, erosketak etxera igotzeko...etab

Arazo guzti hauek ez dira berriro gertatuko gure enpresarekin. Zuk etxetik egingo duzu eskaera, eta **2 egunetan** eskaera zure atean izango duzu esfortzurik gabe eta goian aipatutako arazo guztiak jasan barik. Zerbitzu hau enpresa edo supermerkatu batzuk dute, baina, ez da gure enpresa moduko bat ezagutzen eta supermerkatu guztien produktuak eskaintzen dituena. Negozio-idea hau **berritzailea** da eta bezeroen onura handiagoa izateko eginda dago, haien erosotasuna hobea izateko.

- **Hirugarren adineko pertsonak** arazoak dituzte erosketak egiteko, askok indarra galdu dutelako edo mugitzeko/ibiltzeko ahalmena txikia dutelako. Ideia honekin erraztasuna izango dute erosketak egiteko, etxera helduko zaielako erosketak ezer egin gabe.